

Lekua eta data: (e)n, (e)ko aren (e)(a)n

Inbertsio-zorroen Kudeaketarako Kontratu Eredua

Batetik, BANCO SANTANDER, S.A., helbide soziala Pereda Pasealekua 9-12, Santander (39004), eta IFZ A-39000013 dituen, Kantabriako Merkataritza-erregistroan erregistratua: 286 orria, 64 folioa, Sozietateen 5. liburua, 1. inskripzioa. **BANCO SANTANDER, S.A.** kreditu-erakunde bat da, Espainiako legeei jarraikiz behar bezala eratua, Espainiar hiritartasunekoa eta Espainian errotua, eta Espainiako Bankuak (www.bde.es) eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (www.cnmw.es) gainbegiratua, Espainiako bi entitate gainbegiraleen erregistroetan behar bezala jaso, 49 eta 1 kodeekin, hurrenez hurren. **BANCO SANTANDER, SA** Kreditu Erakundeetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago, berariazko erregulazioan ezarritako terminoetan. Egintza honetan, Olga Abad Paris andreak eta Alejandro Cecchi González jaunak ordezkatzuko dute, eskritura bidez ahaldunduak. Notario hauek egiletsi zituzten eskritura horiek, hurrenez hurren: Kantabriako Kidego Txit Prestuko notario Juan de Dios Valenzuela Garcíak, 2014/11/26an eta 2214 protokolo-zenbakiarekin; eta Kantabriako Kidego Txit Prestuko notario Juan de Dios Valenzuela Garcíak, 2014/11/26an eta 2214 protokolo-zenbakiarekin.

Bestetik, titular hau(ek):

Titularraren datuak:

Izen-deiturak/Izen soziala: NANA/Nortasun-agiria:

ID Kode Nazionala/Entitate juridikoko kode identifikatzailea (LEI):

Bizileku-herrialdea: Espainiako helbidea:

Esku-hartze mota:

Legezko ordezkarien edo boteredunen datuak:

Izen deiturak: NAN/Nortasun-agiria: Esku-hartze mota:

Notarioa: Data: Protokolo zk.:

Finantza-tresnen zorroaren zenbakia:

Lotutako kontuaren zenbakia (EUROAK):

Lotutako kontuaren zenbakia (DIBISA):

Korrespondentzia eta jakinarazpenen bidalketa:

Espainiako helbidea:


Posta-kodea eta udalerrria:

Helbide elektronikoa:

Mugikorra:

Titularr(ar)en sinadura

BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)



Alde batetik, BANCO SANTANDER, S.A. (aurrerantzean, Bankua), alderdi baten inbertsio-zorroen kudeaketa burutzean datzan inbertsio-zerbitzua emateko legez gaituta dagoen erakundea, eta, bestetik, kontratu honen lehenengo orrian behar bezala identifikatutako pertsona(k) edo Erakundea(k) (aurrerantzean, Titularra), zeinak Bankuaren zerbitzuak kontratatu nahi duten haien finantza-tresnen zorroa kudeatua izateko,

ADIERAZTEN DUTE

1.- Bi alderdiek ezagutzen dutela bestearen legezko gaitasuna eta ordezkapen nahikoa dutela Inbertsio Zorroen Kudeaketarako Kontratu Eredu hau burutzeko, eta hari merkataritza-kontratu izaera ematen diotela, Baloreen Merkatuaren legeak jasotzen dituen informazio baldintzei eta jarrera arauari jarraituz, are zehatzago, kontratuan datozen Baldintza Orokor hauei eta gainerako hitzarmenei jarraikiz.

2.- Titularrak zorroen kudeaketa zerbitzua kontratatu nahi duela eta kontratua arautzen duten baldintzak osorik ezagutzen dituela eta aitortzen duela egintza honetan kontratu honen ale bat jaso duela, orrialde guztietan sinatua.

3.- Kontratu hau gaztelaniaz egin dela eta hizkuntza horretan egingo direla Bankuak Titularrari zuzentzen dizkion jakinarazpen guztiak, hala badagokio, kontratuzko harreman osoan zehar, alderdien besterik hitzartu ezean. Gaztelania izango dela Bankuaren aurka egindako erreklamazioak aurkezteko eta kontratu honen ebazpenak jakinarazteko erabiliko den hizkuntza.

4.- Aplikagarria den araudiarekin bat eginez, Bankuak zorroen kudeaketa-zerbitzua txikizkari edo profesional gisa sailkatutako bezeroei zedarrizten diola.

5.- Kontratu hau hitzartu aurretik, Bankuak Titularraren jakintza eta esperientziari buruzko informazioa, inbertsioaren helburuak eta finantza-egoeraren inguruko informazioa jaso duela eta horren berri eman duela Titularrak egindako egokitasun-proban.

6.- Bankuak behar bezala jakinarazi diola Bankuak zuzenean emango dituela zerbitzuak edo zorroen kudeaketa-zerbitzua emateko gaitutako hirugarren entitateei lagata. Edonola ere, Bankuari dagokio Titularraren aurrean zerbitzua behar bezala ematea, Legeak xedatutakoaren arabera. Lagatze hori gertatuz gero, Bankuak behar bezala jakinaraziko dio Titularrari eta azken honek baimena emango dio Bankuari bere datu pertsonalak eta zorroari lotetsitako finantza-tresnen egoera eta mugimenduen inguruko datuak lagatzeko, zerbitzua emateko beste informazio guztiekin batera, lagatze hori ezinbestekoa baita inbertsioa burutzeko edota ezinbestekoak diren beste funtzio edota zerbitzuentzat.

Aurreko azalpenak aztertuta, agertutakoek kontratu hau hitzartu dute honen arabera:

BALDINTZA OROKORRAK ¹

Lehena.- Kontratuaren xedea. Inbertsio-irizpideak. Ekiteko modua.

1.1. Titularrak Bankuari eskatuko dio finantza-tresnen kudeaketa egitea, zeina hauek osatzen duten: balore higiezinak, tituluak, efektuak, eskubideak, aktiboak edo finantza-aktiboak (aurrerantzean, baloreak edo finantza-tresnak) edo dirua, kontratuaren I. eranskinean deskribatzen diren bezala, eta baita Titularrak ekarritako eskudirua edo baloreak ere, aurrerantzean, edo Bankuak Titularraren izenean erositakoak. Azken horien kasuan, Bankuari aginduko dio kontratua burutzea jarraian zehazten diren termino eta baldintzen arabera.

Inola ere ezingo du kudeaketak Titularrak hasieran ekarritako edo gero ekartzen joan den ondarearen batura gehi Bankutik edo legez gaitutako hirugarrenetatik horretarako lor ditzakeen mailegu/kredituak gaintitu, kudeatu beharko den ondareak izandako balioaren areagotzean eragin gabe. Kudeatutako zorroaren konpromisoen mugei dagokienez, zenbateko horrek ezingo du aurreikusitako Bankuak galerei aurre egiteko ekarpenak eskatzea, Titularraren ekarpen boluntarioen kasuan edo Bankutik zein hirugarren batetik, aurreko puntuan azaldu den bezala, lortutako kredituen kasuan izan ezik.

1.2. Inbertsioko irizpide orokorren inguruan kontratu honetan aurreikusitakoaren aurka egin gabe eta haren arabera, Bankuak, Titularraren izenean eta hura ordezkatzeko, bere kabuz ordenatu ahal izango du eta bere sinadurekin, bere

¹Kontratu-eredu bat da hau, eta hauen arabera idatzi da: 217/2008 Errege Dekretua, otsailaren 15koa, inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundeen erregimen juridikoari buruzkoa; EHA/1665/2010 Agindua, otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 71. eta 76. artikulua garatzen dituena; eta 7/2011 Zirkularra, abenduaren 12koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, tarifen informazio-liburuxkari eta kontratu-ereduen edukari buruzkoa.

irizpideari jarraiki eta bere ekimenez, alde zurretik galdetu behar gabe eta Titularraren baimenaren beharrik gabe, kontratu honen II. eranskinean datozen balore edo finantza-tresnen kategoriei buruzko salmenta, erosketa, mailegu, harpidetze, amortizazio edo bihurtze oro, zeinak Titularrak baimendu behar dituen eta, gainera, dibidenduak jaso, interesak kobratu eta kontratuak hartzen dituen eragiketei dagozkien zergak zein gastuak ordaindu, aipaturiko eragiketei lotutako obligazio guztiak eta eskubideak burutu eta, oro har, esleitu zaion zorroaren administrazioa eta kudeaketa egiteko beharrezkoak diren eragiketak egitea.

1.3. Kudeaketa jarduera burutzean, Bankuak uneoro jarraituko ditu Titularrarekin ekintza honetan adosten diren inbertsio-irizpideak, zeinak kontratu honen II. eranskinean deskribatzen diren. Izan ere, Bankua adostutako irizpide orokorretatik aldendu daiteke bere irizpide profesionalak hori gomendatzen duenean edo hori arrazoitzen duten ezustekoak gertatzen direnean. Kasu horietan, Bankuak urrutze hori erregistratuko du eta Titularrari jakinaraziko dizkio gora beherak, igorriko zaion aldizkako hurrengo txostenean.

1.4. Titularrak aipaturiko irizpideak aldatu ahal izango ditu, funtsezko elementuei dagokienez. Horretarako, nahikoa izango da bere asmoa Bankuari jakinaraztea eta II. eranskina berriz hitzartzea, zeinak, alderdiek sinatutakoan, aurrekoa ordeztuko du eta kontratu honen barruan sartuko den. Indarrean sartuko dira inbertsiorako irizpide berriak eta, ondorioz, nahitaez bete beharko dira Bankuak kontratu honen eranskin horri dagokion eta Bankuak jasotzen duen egunetik hamabost eguneko epean, alderdiek aurkakoa onartzen dutenean izan ezik.

Inbertsio-irizpideak aldatzeak ez dio Bankuari eragiketak osatu edo inbertsio-irizpide berriak indarrean sartzen diren eguna baino lehen hirugarrenekin hartutako betebeharrak betetzea galaraziko.

Atal honetan adierazitako alderdiei dagokienez, funtsezko alderdietan eragina dutenak bakarrik hartuko dira inbertsio-aldaketa gisa, hau da, Titularraren arrisku profilaren edo haren asmoen aldaketa nabarmena dakartenak (hor sartzen dira, aukeran, jasangarritasunari buruzko hobespenak), baita eragiketa zehatzak egiteko baimenetan zein aktibo mota zehatzetan inbertitzeko moduan aldaketak eragiten dutenak, kontratu honen II. eranskinean bildutakoaren arabera.

1.5. Titular bat baino gehiago daudenean, aurkakoa adierazten ez bada, Titularretako batek, sinadura bakarrarekin, kontratuari lotutako eskubide guztiak burutu ahal izango dituela (baliogabetzea barne) modu solidarioan.

1.6. Titularrak badaki kudeaketa kontratuaren barruan egin daitezkeen inbertsioak euroa ez den beste dibiseta erreferentziatutako aktiboak gauzatzeko, dibisa batetik bestera aldatzeak eragin ditzakeen gorabeheren ondoriozko finantza-arriskuarekin, beraz, arrisku hori inbertsioak iraungo duen denboraren arabera, hura egingo den monetaren eta jarritako kantitatearen arabera aldatuko da.

Bigarrena.- Eurotan eta dibisatan Administratutako Kontu Korrontea.

2.1. Kontratu honen ondoriozko eragiketak emango dituzten eskudiruko mugimenduak Titularrak bere izenean Bankuan ireki duen edo mantentzen duen eurotan administratutako den kontu korrontean edota dagokion dibisan administratzen den kontu korrontean bilduko dira, kasuak kasu, kontratu honen goiburuan identifikatutakoa, zeina kontratu honen xedea betetzeko bakarrik erabiliko den. Eta, aurreko xedeekin, bereziak direlako, ezingo dira lotu kontu horiek kreditu edo mailegu txartelei, ezta ordainagiriak helbideratzeko erabili edo txekak igortzeko euskarri gisa erabili.

2.2. Kontu hauen Titularrak haiek jaso nahi baditu, gutxienez hirurogeita hamabi (72 ordu) ordu lehenago jakinarazi beharko dio Bankuari idatziz aldi berean baloreak erostegatik zorpekoak eragozteko eta jakinarazpena jaso aurretik hitzartu ziren eta bidean diren eragiketak egiteko, likidatzeko edo baliogabetzeko, zeinak aplikatuko diren baldintzak beteko dituzten. Arestian adierazitako epean eta moduan jakinarazten ez bada, kontratu honetan adierazitako baliabideren batez jakinaraziko zaio egoera Titularrari, berehala, hirurogeita hamabi orduko (72 ordu) epean jakinarazpena jasotzen denetik, zorpeko hori estal dezan; hala egin ezean, Bankuak zorroa osatzen duten baloreetako batzuk besterendu ahal izango ditu hura estaltzeko, eta Titularrak ordaindu beharko ditu sor daitezkeen gastuak. Besterentze hori, Bankuaren iritziz Titularrarentzat kalte txikiena eragin dezaketen zorroko baloreetan egingo da, eta Bankua ez da inola ere ez Titularrari eragin ahal izango din berehalako edo etorkizuneko besterentze horren erantzulea, ezta besterentze horren ondoriozko zergena ere.

2.3. Hirugarren baldintza orokorrean araututako finantza-tresnen zorroan euroan ez dauden dibisen finantza-tresnarik badago, kontratu honen hasieran adierazitako dibisa erabiliko dela jakinarazten dizugu.

Kasu horretan, ordainketa edo kargu kasu oro, edo komisio zein gastuak, eurotako kontrabaloreen gainean kalkulatu dira. Dagokion dibisarako indarrean dagoen kanbio-tasa ofizialaren arabera kalkulatu da kontrabalioa, eroslearen edo saltzailearen prezioan oinarrituta, dagokionaren arabera, komisioa edo gastua ordaintzeko egunean Bankuak eskuragarri dituen arabera. Aurrekoaren aurka egin gabe, Bankuak adierazitako kanbio-tasaren eta

ordainketa egiteko eguneko tasaren aldaketaren ondoriozko aldeak ere jaso ahal izango ditu eta Titularrari jakinaraziko dio gertaera.

Hirugarrena.- Finantza-tresnen Zorroaren irekitzea.

3.1. Titularrak kontratu honen goiburuan identifikatutako finantza-tresnen zorroa Bankuan ireki edo hura mantentzen du bere izenean, non zorroaren kudeaketaren hasierako ondarea osatzen duten baloreak utzi diren, kontratuaren I. eranskinekoak, eta baita kontratu hau burutzean hartuko dituen baloreak ere eta, dagokienean, jabego hori ziurtatzen duten gainerako ordainagiriak ere.

3.2. Bankuak, lehenengo baldintza orokorrean hitzartutakoari dagokionez, Titularraren izenean dauden gordailuak eta baloreen zein eskudiruaren erregistroak sustatu ahal izango ditu, finantza-erakundeen eta gordailuen beste establezimenduetan erosketa, salmenta, harpidetza, amortizazio, truke edo bihurtzea eragiketa baimenduen ondorioz, eta haiei dagozkien agiriak atera ahal izango dituzte entitateetan; helburu horietarako beharrezkoa den informazioa jaso eta eman ahal izango dute. Edonola ere, Bankuak uneoro izango ditu bezero bakoitzaren baloreak, eskudirua eta eragiketak eta gainerako bezeroenetatik eta Bankuko posiziotik bereizita mantenduko dituzte. Atzerriko baloreen merkatuetan egindako eragiketak direnez, kontratu honen hamahirugarren baldintza orokorrak zehazten duena aplikatuko da.

Gainera, kontratu hau baliogabetu beharko balitz, Titularrak baimena ematen dio Bankuari Titularraren izenean finantza-tresnen zorro berri bat eta baloreen kontu bat irekitzeko, non utziko diren eta zure eskura izango dituzun kudeaketa zerbitzuaren baliogabetzearen ondoriozko balioak jarriko ditu zure eskura. Bankuak behar bezala jakinaraziko dio hori Titularrari.

Laugarrena.- Kudeaketa zerbitzua ematea delegatzea.

Bankuak Titularrari jakinarazten dio kontratatutako jarduera emateko zorroaren kudeaketa eta funtsezko zerbitzuak berak emango dituela edo zorroaren kudeaketa-zerbitzua emateko gaitutako hirugarren entitate bati laga ahal izango diola. Edonola ere, Bankuari dagokio zerbitzua behar bezala ematea, Legeak dioenaren arabera.

Kudeaketa lagatzen bada, edo haietan aldaketak gertatzen badira, Bankuak Titularrari jakinaraziko dio eta, kontratu honetan araututako zorroaren kudeaketa eta administrazio lanak betetzeko, Bankuak kudeatzaileari datu pertsonalak eta administratutako kontu korrontearen edo korronteen egoerari zein mugimenduei buruzko informazio osoa emango dio, ezinbestekoa baita inbertsio-zerbitzuak egiten lagatzeko edota zerbitzua emateko ezinbestekoak diren funtzioak burutzeko.

Bosgarrena.- Bankuaren erantzukizuna.

5.1. Kontratu honen ondoriozko obligazioak, Bankuak bere gain hartutakoak, baliabideen obligazioak dira, ez emaitzenak. Bankuak jarduera enpresari ordenatu eta lege ordezkari baten bizkortasunarekin garatzeko konpromisoa du, eta uneoro babestuko du Titularraren interesa, Bankuko arauen, baloreen merkatuaren eta gainerako araudiaren arabera.

5.2. Inbertsiorako irizpide orokorren esparruan, zeinak kontratu honen II. eranskinean zehazten diren, Bankuak Titularrak bere irizpide profesionalean oinarrituta esleitutako ondarearen kudeaketa egingo du, eta posizioak Titularrak adierazitako arrisku-profilaren arabera aniztuko ditu, haren interesei eta inbertsio-helburuei lehentasuna emanez.

Titularrak bere gain hartzen ditu espresuki eta hemendik aurrera kudeatutako Zorroetan gerta daitezkeen galeren edota uneoro osatzen duten zorroko aktiboen galeren, merkatuaren gora-beheren edo finantza-tresnen inbertsioek duten arriskuen ondorioz gerta daitezkeen galeren ardura.

5.3. Gerta daiteke, halere, zorroaren kudeaketa-zerbitzu hori Bankuak zorroaren kudeaketa-zerbitzua emateko gaitutako entitateari lagatzen zaionean, Bankuak kudeaketa horren obligazio guztiak betetzen jarraitu beharko du.

Seigarrena.- Titularraren obligazioak.

6.1. Titularrak Bankuari jakinarazi beharko dio, euskarri iraunkorrean eta baliozko baliabide erabilgarri batean eta Bankuan ezaguna dena, egoera hauetan:

a) Zure jakintza eta esperientziari dagozkion egoera pertsonaletan, zure inbertsio helburuetan (barruan sartzen dira, aukeran, jasangarritasun-hobespenak), finantza-egoeran edo sozietate-egoeran gerta daitezkeen edozein aldaketa.

b) Inbertsio-irizpide orokorrak aldatzeko nahia, kontratu honetan bildutakoaren arabera.

c) Titulartasuna edo kontratuan aipatzen diren ondasunen eskuragarritasun librean aldaketa nabarmenen bat dakarren egintza edo kontratua sinatzea eta baita edonola kontratu honen indarraldian, efikazian eta baldintzetan aldaketak eragin ditzaketen gainerako gertakariak biltzen dituen ere.

6.2. Titular pertsona fisikoaren heriotzarengatik edo konkurtsoarengatik, edo Kode Zibilaren 1732. artikuluan bildutako gainerako kasuren bat gertatuz gero, kontratu honen arabera Bankuari emandako aginduek, ordezkariak eta gaitasunek indarrean jarraituko dute, efektu guztientzat, Bankuari ez bazaio behar bezala jakinarazi behar dizkio gertaera horiek, eta Bankua ez da erantzule izango gertakari horren ondoren kontratu honetan egindako gainerako eragiketetan. Xedapen hau termino berberetan burutuko da Titular bat baino gehiago daudenean kontratuan.

6.3. Titular pertsona juridikoaren likidazio, desegite, bateratze edo konkurtsoarengatik, edo Titularra desagertzeko moduren batean, edo kontratu honetan eragina izan dezakeen beste gertaeraren baten kasuan, kontratu honen arabera Bankuari emandako aginduek, ordezkariak eta gaitasunek indarrean jarraituko dute, efektu guztientzat, legez baimendutako pertsona edo erakunde batek gertaera hori Bankuari jakinarazten ez badio, eta Bankua ez da erantzule izango gertakari horren ondoren kontratu honetan egindako gainerako eragiketetan.

6.4. Bankuak aurreko jakinarazpenen bat jaso duenean, administratutako kontu korrontea blokeatu ahal izango du eta baita Bankuari bere lege edo zerga obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten une horretara arte kudeatzen laguntzeko balio duten finantza-tresnen zorroa ere; Bankuak ondarea babesteko egin ditzakeen ekintzetan ez dute galerarik eragingo, besteak beste: kupoiak eta dibidenduak kobratzea, askatutako kapital areagotzeetara joatea edo derrigorrezkoak diren trukeetara joatea. Titular bat baino gehiago egonez gero, haietako bat hildakoan edo likidatutakoan, eta Bankuari gertaera hori jakinarazitakoan, elkartasun erregimen hori etengo da xedapen-modu hori aplikatu daitekeenean.

Zazpigarrena.- Titularrari informatu beharra.

7.1. Bankuak Titularrari jakinaraziko dio, eta Titularrak transakzio bakoitzari buruzko informazioa eskatzen jarraitu ahal izango du, erosketa, salmenta, harpidetze, itzulera, truke eta baloreen amortizazio guztien inguruko informazioa, eta hilean behin bidaliko die zorroa osatzen duten baloreen eta eskudiruaren xehetasunak, dagokion balorazioarekin, eta zorroaren etekina azken jakinarazpenekoarekin eta I. Eranskinean aipatzen den erreferentziako parametroarekin alderatuko da eta gastuen eta sortutako komisioen xehetasunak emango dizkio.

Titularrak Bankuari aginduko balio II. eranskinean adierazitako zorroaren arrisku-profila aldatzea, Bankuak Titularrari jakinaraziko dio, hemen azaldutako baldintzetan, kudeaketa jardueran erabilitako arrisku profil berriaren erreferentziako parametroak Titularrak inbertsio-zorroaren emaitzak ebalua ditzan.

Titularrak berariazko baimena ematen dio Bankuari berari zuzendutako informazioa paperean edo papera ez den euskarri iraunkorrean eman diezaion. Horretarako, Bankuak informazioa bidaltzeko baliabide edo tresna gisa erabili ditzake (posta, Internet bidezko bankua, banku mugikorra, faxa, posta elektronikoa, etab.), zeinak Titularrari informazio hori gorde eta informazioa gordetzearen xede denerako aldi egokian berreskuratzea ahalbidetuko eta hura aldatu gabe erreproduzitzea ahalbidetuko duten.

Kontratu hau sinatzean, Titularrak baimena ematen du Bankuak aurreikusitako informazioa eman dezan kontratu honetako zerbitzu eta produktuak emateko araubidea jarraituz posta elektronikoz komunikazioetan, helbide elektronikora edo mugikorrera deituz Titularrak horretarako emandako zenbakira.

Bankuak eskubidea izango du araudian datozen gutxieneko epeetan informazioa bidaltzeko aldirokoatasuna aldatzeko alde zuzenetik Titularrari jakinaraziz gero.

7.2. Bankuak, Titularrari igorritako azken informaziotik hasita, Titularrari jakinaraziko dio alde zuzenetik kontratu honen II. eranskinean alderdien artean adostutako maila gainditzeko, asko jota mugaren hurrengo egunean, edo laneguna ez denean, hurrengo lanegunean.

7.3. Bankuak Titularrari jakinaraziko dio Bankuak jasotako eta Titularrak ordaindutako komisioen eta gastuen zenbatekoak. Titularraren kargura izango dira kontratu honi jarraiki bidalitako dokumentazioak sortzen duen posta-gastu guztiak, baita kontratu eredu honetatik eratorritako betebeharrak sortu, bete edo amaitzeagatik sortzen diren zerga guztiak ere. Gainera, kudeaketa zerbitzuarengatik edo haren zerbitzu osagarriarengatik diru-irabazirik, komisiorik, kosturik edo kontratu honetan bildu ez diren beste gastuak sortuko balira, Titularraren kontura izango dira, eta Bankuak behar bezala informatuko dio hari.

Horrez gain, Bankuak idatziz edo euskarri jasagarrian jakinaraziko dio Titularrari dokumentu honekin lotuta aplikatu daitezkeen komisioen eta gastuen edozein aldaketa eta, horretarako, Titularrak hilaibeteko epea du aipaturiko

informazioa jasotzen duenetik kontratua aldatu edo baliogabetzeko, epe hori igarotakoan gorantz aldatutako komisioak eta gastuak Titularrarentzat hobeak direnean izan ezik, non aplikatzen hasiko diren unean jakinarazi beharko den. Informazio hori Bankuak Titularrari hornitu beharreko aldizkako edozein komunikaziotan sartu beharko da.

7.4. Titularrari egindako komunikazio guztiak kontratu honetan adostutako moduan eta aldirokotasunean egingo dira eta, betiere, legeak ezartzen dituen baldintzetan eta aldirokotasunean.

7.5. Titularrari egin beharko zaizkion komunikazio guztiak kontratuaren goiburuan adierazitako posta helbidean, telefonoan edo helbide elektronikoan egingo dira. Titularrak bi edo gehiago direnean, komunikazio horiek kontratu honetan adierazitako lehenengo Titularraren helbidera bidaliko dira.

7.6. Titularrak jakin badaki, kontratu honen arabera eta zorroen kudeaketa zerbitzuaren ezaugarriei begira, zeinak inbertitzaileei bidali behar zaien alde zuzeneko informazioaren eta aldirikoen baldintzak dituen, ez duela zertan entregatu Inbertitzailearentzako Oinarrizko datuen Dokumentua (DFI) eta sei hileko txostena edo merkaturatze-memoria, ezta harpidetutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondorengo aldizkako txosten ekonomikoak ere, edo kudeaketaren barne daudenak, informazio horren helburua inbertitzaileek inbertsioan edo ez-inbertsioan oinarritutako erabakiak hartzea delako, eta zorroen kudeaketaren kasuan, erabaki horiek Bankuak hartzen dituelako, kontratu honetan hitzartutako baldintzen arabera.

Zortzigarrena.- Interes gatazkak eragin ditzaketen eragiketak.

Bankuak Titularrari jakinaraziko dizkio Titularrari bere jardueran suerta daitezkeen gatazkak. Are zehatzago, zazpigarren 1 baldintza orokorrean aurreikusitako informazioan, aldizka kudeatutako zorrora igortzen dena, Bankuak Titularrak baimendutako eragiketen, inbertsioen edo ekintzen berri eman ahal izango du kontratu honen II. Eranskinaren bitartez edo alde zuzenetik eragiketa bakoitzarentzat emandako baimenaren bitartez.

Bankuak adierazten du egun bete behar diren interes-gatazken arloan arau orokorrak betetzen dituela eta, ondorioz, interes-gatazken politika bat baduela. Titularrak politika horren inguruko informazio hori www.bancosantander.es webgunean ikus dezake, MiFID atalean, "Inbertsio-zerbitzuen prestazioaren inguruko informazioa" atalean.

Bederatzigarrena.- Bankuari ordaintzea.

9.1. Bankuak ordainketa gisa hauetako bat jasotzea adostu ahal izango dute alderdiek: kudeatutako zorroaren balio eraginkorrean oinarritutako kudeaketa-komisio finkoa, zorroaren irabaziengatik edo errebalorizazioagatik lortutako kudeaketa-komisioa, edo kudeaketa-komisio mistoa, bi motatako kudeaketa-komisioak biltzen dituenak, zeinak elkarren osagarriak baitira.

Bankuak, igarotako hiruhileko naturalengatik jasoko du, zorroaren balio eraginkorrean oinarrituta hitzartutako komisio finkoa edo urtean behin irabazien edo zorroaren errebalorizazioan komisioa adostuta dagoenean, administrazioak emandako zerbitzuaren eta ondareen kudeaketaren ordainketa gisa, kontratu honetako I. Eranskinean adostutako komisioen arabera. Gainera, Bankuak eskubidea izango du hark edo Titularrak eman ditzaketen eragiketekin eta beste zerbitzuekin sortutako komisio, kostu eta gastuak jasotzeko, kontratuari dagozkionean edo ez. Komisio horiek ezingo dute gainditu Erakundearen Tarifen informazio-liburuxkan zehaztutakoak.

Urtebetetik edo hiruhilekotik beheragoko fakturazio-aldietarako, sortzapen-epetik igarotako egun kopuruari dagokion proportzioan sortuko da, kontratu honetako I. eranskinean adostutakoaren arabera.

9.2. Bankuak emandako zerbitzuaren komisioak aldatuko balitu, egoera hori idatziz jakinarazi behar dio Titularrari, aurreko zazpigarren baldintza orokorrean adierazitako baldintzetan.

9.3. Eraitza baldintza orokorren bigarren baldintzan aipatutako eurotan administratutako kontu korrontean zordunduko da, zeina Bankuak horretarako erabili ahal izango duen eta non Titularrak administratutako eta kudeatutako zorroaren ondoriozko diru-sarrerak, gastuak eta tributuak kargatuko diren. Horretarako, Titularrak Bankuari baimena emango dio zordunketa egin behar duen egunean Titularrak saldirik ez badu kontu korrontean, eta Titularrak Bankuaren jakinarazpena jaso duenetik 72 orduko epean, Bankuak aipaturiko kantitate horiek jaso ahal izateko saldu beharreko baloreak saltzeko. Adierazitako jakinarazpenean sartuko dira, lehentasunaren arabera, adierazitako kantitateak zorduntzeko saldu edo itzuli beharreko baloreen zerrenda. Baloreen aukeraketa, Bankuaren iritziz, Titularrarentzat kalte txikiak eragingo dituenetik hasiko da, nahiz eta Titularrak zehaztu ahal izango dituen eta Bankuari jakinarazi adierazitako epearen aurretik, Bankuak aukeratu dituenak baino beste batzuk saltzea, ordaindu beharreko kantitateak ordaindu ahal izateko. Bankua ez da inoiz izango Titularrarentzat salmenta horrek berehalda edo etorkizunean izan dezakeen eraginaren erantzulea.

Edozein kasutan, Titularrak baimena ematen du administratutako kontu korrante horretan behar adinako saldo hartzekodunik egon ezean, Bankuak Titularraren kontuko komisioak, gastuak edo tributuak beste edozein kontu korrontetan edo, halakorik izan ezean, Bankuak Titularraren izenean irekitako edozein aurrezki-kontutan kargatzeko. Konpentsazio-ahalmen hori titularrak hirugarren pertsonekin batera dauzkan kontu eta gordailuetara ere zabalduko da, eskubideak gauzatzeko eta funtsak erabiltzeko modua bereizigabea bada, hau da, euren artean solidarioa.

Kode Zibileko 1730 eta 1780 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Bankuak, behar bezalako ordainketa eta eskubidez dagozkion kalte-ordainak eta itzulketak bermatzeko azken batean kontratu eredu honen babespean gordailuan dauden, erregistratu diren edo administratzen diren finantza-tresnak bahituran atxiki ahal izango ditu eta Bankuak Konkurtso Legean ezarritako lehentasuna izango du.

9.4. Aurreko 9.3. paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kudeaketa-komisioa kobratzeari dagokionez, titularrak berariazko baimena ematen dio Bankuari, zordunketa-datan kontu elkartu horietan nahikoa saldo ez badago, Bankuak dagozkion zenbatekoak kobratu ahal izateko beharrezkoak diren finantza-aktiboak sal ditzan. Salmenta hori kudeatutako zorroaren finantza-aktiboen artean egingo da, baldin eta, Bankuaren iritziz, titularrarentzat hain kaltegarria ez bada. Bankua ez da inoiz izango Bezeroarentzat salmenta horrek berehala edo etorkizunean izan dezakeen eraginaren erantzulea.

Hamargarrena.- Zorroaren balorazioa.

Titularraren zorroaren balorazioa, zeina administratutako kontu korrantea ere hartuko duen, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Inbertsio Higigarrien Funtsen zorroak baloratzeko zehaztutako irizpideen arabera egingo da.

Aktiboen balorazioa erakunde desberdinek aldizkako informazioa sortu denean emandako azken informazioaren arabera zehaztuko da, eta ez du zertan bat etorri txostenean adierazten den aldiaren azken egunarekin. Finantza-aktiboen balorazioa egiteko, informazio-iturri fidagarrien bitartez lortutako prezioak erabiltzen dira, beste iturriren bat erabili ahal bada ere (adibidez, Bloomberg, Reuters edo Infobolsa), eta, dagokionean, produktuaren jaulkitzailearen edo hornitzailearen web orria, egokia denean finantza-tresnaren prezioa jakiteko. Euroa ez den beste dibisa batean datozen aktiboentzat, dagokion kanbio-tasaren arabera kontrabalia zehaztuko da. Inbertsio kolektiboko jarraibideentzat, dagokion kudeatzaileak emandako azken likidazio-balorea hartuko da.

Aktiboak baloratzeko iturri nagusiak haien motaren arabera, sistema multilateralaren edo kotizatzen duten merkatuaren arabera izango dira. Gainera, merkatuko prezioa lortzerik ez dagoenean, balore edo finantza-tresnen gutxi gorabeherako balorazioa emango da, eta hutsa ere ager daiteke, likidezia faltaren adierazle.

Hamaikagarrena.- Eragiketa-hainbanaketa.

11.1. Bezeroek egin beharko luketen inbertsio-erabakien edo ez inbertitzearen exekuzioa Bankuaren zerbitzu bat da.

11.2. Bankuak administratutako hainbat zorrotan sartzan den aktibo beraren eragiketa multzokatua egiten badu, erosketan ordaindutako zenbatekoen banaketa objektibizatzeko, Bankuak horretarako zehaztuta dauzkan esleipenerako barne-prozeduren arabera hainbanatuko ditu. Bezeroek egin beharko luketen inbertsio-erabakien edo ez inbertitzearen exekuzioa aginduaren aurrekoa dela ziurtatzeko barne-prozedurak ditu Bankuak.

11.3. Bankuak bere jarduera bezeroen arteko gatazkak saihestuz burutuko ditu, haien interesak babestuz, eta horretarako, bezeroentzako eragiketak egiteko erabiliko dituen merkatuko edo finantza-erakundeetako kideengandik saiaturiko da lortzen une bakoitzeko merkatuaren egoera ezagutzen lagunduko dioten baldintzak. Hori guztia Bankuaren exekuzio optimorako politikaren arabera, zeina eskuragarri dagoen Bankuaren web orrian: www.bancosantander.es, MiFID eremuan.

Titularraren zorroa eratzen duten baloreei dagozkien eskubide guztiz politikoak ezingo ditu Bankuak burutu, kasu bakoitzean Titularrak indarrean dagoen legeriaren arabera lagatakoa aurkaratu gabe.

Hamabigarrena.- Kontratuaren iraupena eta amaiera.

12.1. Kontratu honen iraupena mugagabea izango da, eta alderdietako batek amaitutzat eman ahal izango du nahi duenean besteari hori jakinarazteko idatziz. Indarrean dagoen bitartean Bankuak kontratua amaitutzat eman nahi badu, Titularrari hilabete bat lehenago jakinarazi behar dio, kasu hauetan izan ezik: a) Bezeroak kontratutik eratorritako betebeharren bat ez ordaintzea, b) kapitalak zurrizteari edo merkatuko abusuari aplikagarri zaien araudia urratzea, edo c) Bezeroarekiko kreditu-arriskua, kasu horretan kontratua berehala amaitutzat jo ahal izango da.

Kontratua amaituz gero, Titularrak edo Bankuak eskatuta, Titularrak zorroa kudeatu den bitartean sortutako administrazio eta kudeaketa komisioak ordaindu behar ditu, eta Bankuak, gainera, kontratua amaitutzat ematen den

unean likidatzeke dauden eragiketei dagozkien komisioak ere jasoko ditu. Kontratuaren bukaera egiaztatzen denean, Bankuak Titularraren baimen osoa eta itzulezina du dagozkion komisio eta gastuak kobratzeko, edo kontratuaren arabera Titularrak Bankuaren aurrean zor duen beste edozein kantitateri dagozkionak kobratzeko, aipaturiko bigarren baldintza orokorrean adierazitako kontu korrontearen bitartez. Zordunketaren ondorioz, kontu horretan zorpekoa sortuko balitz saldoa nahikoa ez delako, kontratu honetako bederatzigarren, 3 baldintza orokorrean bildutakoa gauzatuko da.

12.2. Kontratuaren mugaeguna edo ebazpena gertatuta, eta kontratua ebatzi aurretik abian jarritako aginduak likidatu ondoren, Bankuak hamabost (15) eguneko gehieneko epea izango du Titularraren zordundutako komisioak ordaintzeko eta egindako kudeaketa-kontuak adierazi eta ixteko.

Aurreko 12.3 atalean hitzartutakoaz gain, Bankuak aurretik azaldutako likidazioaren eta itxieraren ondoriozko ondarea Titularraren eskura jarri ahal izango du, hark emandako jarraibideei jarraikiz. Haiek ez badaude, eta kudeaketa zerbitzuari lotutako Titular independentearen izenean finantza-tresnen zorrerik ez badago, Bankuak hirugarren baldintza orokorraren 2. atalean zehazten dena beteko du. Edonola ere, Titularrak Bankuari baimena ematen dio, beharrezkoa denean, kontu korronte bat irekitzeko, kudeaketaren bukaeraren ondoriozko ordainketa eta karguak egin ahal izateko.

12.3 Bankuak kontratu honen ondorioz emandako zerbitzuak Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) akzio edo partaidetza motetan sartzea zehazten du zeinaren informazio-liburuxkaren arabera, klase bakoitzarentzat komisio murriztuak dituzten. Klase horiek bezeroak kontratatzeke bakarrik dira, kontratu hau sinatu ondoren, Bankuari euren zorroaren kudeaketa Bankuari esleitu dietenak.

Aurrekoaren ondorioz, eta Titularra pertsona fisiko egoiliarra denez, kontratua edo Titularrak kudeaketa-zerbitzuarekin IICren akzio edo partaidetza denak edo batzuk kentzearen inguruko aginduen kasuan, Titularrak baimena ematen dio Bankuari IICren akzio edo partaidetzak batetik bestera edo mota batetik bestera intsuldatzeko, ondoren Titularrak, liburuxketan adostutakoaren arabera, akzio edo partaidetza moten arteko trukea Bankuak Titularrari emandako kudeaketaren ondoren inbertsio-zerbitzurako dagozkionak izan daitezen. Hori guztia Titularrak uneoro kudeatutako zorroaren atal bat osatzen duten titulartasunaren aktiboen gainean izango duen itzultzeko eskubidea galdu gabe.

Egoiliarak ez diren Titular pertsona juridiko edo fisikoen kasuan, kontratua eteteko edo Titularrak IICren akzio edo partaidetza guztiak edo batzuk kentzeko aginduen inguruan, Bankuak eskaerari dagozkion aktibo batzuk edo denak itzuliko ditu, eta Titularrari jakinaraziko dio hori.

Hamahirugarrena.- Atzerriko tresnen gainean egindako eragiketak. Kontu globalak.

Atzerriko baloreen merkatuetan egindako eragiketetan, kontuan hartuko da bakoitzean indarrean dagoen legeria berezia. Kontratu eredu hau sinatuz, Titularrari jakinarazten zaio eta berariazko baimena eta adostasuna agertzen du kontratu honen babespean Bankuari zaintzan utzitako baloreekin atzerriko merkatuetan eragiketarik eginez gero eta horietan kontu globalak erabiltzea ohiko praktika bada (kostuen ondorioz eta eragiketak errazteko), aipatutako balore horiek baloreen jagolearen izenera irekitako "kontu global" batean gordailuan utziko dira, hau da, Bankuaren izenera (edo hartara izendatutako hirugarren baten izenera), "nazioarteko azpijagole" batean (aurrerantzean, Azpijagolea) eta bertan zainduko dira bezero anitz horiei dagozkien baloreak. Kasu horretan, nola Bankuak hala izendatutako Azpijagoleek ere, azaldutako zaintza-egitura osoan, balio horiek beti bezeroarenak bezala identifikatuta egon daitezen beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, Bankuarenak eta azpijagoleenak diren aktibo propioetatik bereizita. Halaber, Bankuak eta azpijagoleek beharrezkoak diren barne-erregistroak mantenduko dituzte, uneoro eta berehala ezagutzeko, bezero bakoitzak abian dituen balioen posizioa eta eragiketak.

Aurrekoaz gain, eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) kasuan, kontratu hau sinatu duen Titularrari jakinarazi zaio eta baimena ematen du IIC bakoitzeko akzio edo partaidetzak kontratu honen arabera sinatzeko eta arestian aipatu diren arrazoiak direla-eta, dagozkion IICko entitate kudeatzailearen "kontu orokor" batean erregistra daitezke "ahaldunorde" gisa jarduten duen Entitatearen izenean (Bankua edo horretarako esleitutako hirugarrena, aurrerantzean "Ahaldunorde").

Ahaldunordeak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu IIC bakoitzaren akzio edo partaidetzak etengabe haiei dagozkien partaide/akziodunarenak gisa identifikatuta egon daitezen eta behar bezala bereizita, dagokienean, Ahaldunordearen aktiboetara edo Ahaldunordeak bere izenean Ahaldunordea ez den beste norbaiten izenean erregistratuta dituenekiko, zeinak partaide/akziodunak IICan duen posizioa, uneoro eta berehala ezagutzeko beharrezkoak diren barne-erregistroak gordeko dituen.

Atzerriko baloreak edo finantza-tresnak kontu globalak erabiliz zaintzeko edo erregistratzeko modu horrek berekin ekar dezake, aplikatu daitezkeen atzerriko legeriak ezartzen duenari jarraiki, balorearen jaulkitzailearen, dagozkion erregistro-sistemaren eta, hala badagokio, tokiko agintari eskumendunen aurrean, baloreen titulartasuna eta barne

hartutako eskubideen gauzapena kontu globalari aitortzea (eta ez Bankuko bezeroari) eta horrek zenbait ondorio izan ditzake baloreen gaineko operatiba arruntean. Titularrak bere jabetzako baloreen gainean dauzkan eskubideak gauzatu ahal izateko, Bankuak hark egoki diren atzerriko baloreen inguruan ematen dizkion aginduak jakinaraziko dizkio azpijagoleari eta eskudirua kargatu edo ordainduko du, edo eragiketa bakoitzeko baloreak bere kontuan egiaztatuko ditu. Atzerriko finantza-tresnei dagozkien eskubide politikoak gauzatzeko, Bankuak ez ditu jasoko Bezeroak ematen dizkion jarraibideak eta ez dizkio helaraziko dagokion Azpijagoleari. Modu berean, Titularrari jakinarazten zaio atzerriko baloreen zaintzaren esparruen ohikoa eta nazioarteko Azpijagoleek beren zerbitzuak emateko eskatzen duten baldintza dela dagozkien kontratuetan baloreen atxikipen-, berme, burutzapen- edo erabilpen-eskubideak aitortzea, kontratuko betebeharrak ekonomikoak urratzearen aurrean bere arriskua bermatzeko modu gisa.

Halaber, Titularrari jakinarazten zaio kontu globalak atzerriko baloreen zaintzarako erabiltzeak berekin ekar dezakeela barne hartutako eskubideen gauzapen osoa eta zehatza aldi baterako eskura egotea aldi baterako mugatzeko aukera. Baita balioa galtzea edo baloreak galtzea ere, operatiba honetatik eta baloreak eta horien zaintza hirugarren Estatu bateko ordenamendu juridikoari atxikita geratzen diren arrisku espezifikoaren ondorioz, baita Europar Batasunetik kanpo ere, hori guztia ondoren jasoko diren terminoetan.

Bezeroek Bankuak irekitako kontuan gordailuan utzitako edo erregistratutako atzerriko baloreen edo balore horiekiko operatibari atxikitako funtsen gainean dituen eskubideak, jabetza eta kaudimen-etzari dagokienez, ezberdinak izan daitezke Europar Batasuneko Estatu Kide bateko legeriari atxikita egonez gero aplikatu beharrekoekin alderatuta.

Kontu globalen erabileratik erortzen diren aipatutako arriskuak kontu globalaren titularraren kaudimen-etzaren kasuan etor litezke (Bankuarena edo izendatutako Azpijagole batena, alegia); kasu horretan, kaudimen-etzari buruzko prozesuari aplikatu dakiokeen legeriak ezartzen duenaren arabera, gerta liteke azaldutako segregazio-neurriak Titularraren baloreak identifikatzeko, porrotean eroritakoaren/kaudimenik ez duenaren ondoretik bereizteko eta jabeari itzultzeko edo beste jagole edo azpijagole bati berehala insuldatzeko nahikoak ez izatea, baldin eta: (i) aipatu legediak baloreen titulartasun fiduziariora aitortzen ez badu (Bankuarena edo nazioarteko azpijagole batena izan, bere izen propioan baina beste norbaiten onerako, kasu honetan bezeroen onerako) eta, horren ondorioz, dagokion Agintaritzak kontu globalean gordailuan utzitako baloreak hirugarrenenak ez direla ulertzen badu, kaudimenik ez duen erakundeena baizik, kontuaren titularrak denez; (ii) porrota aitortzeko unean, erakunde kaudimengabeak (kasu honetan, Nazioarteko Azpijagoleak) bere izenera tokiko erregistro-sisteman bezero guztientzat zaintzan dauzkan balore guztien saldoa estaltzeko adina erregistratuta ez badauzka eta, modu horretan, bakoitzari dagokiona itzultzeko modurik ez badu, benetan berreskuratu ahal izango den kopurua kaudimen eza arautzen duen arauak ezarritako dagoen saldoaren banaketari eta kredituen aitortpenari eta lehentasunari buruzko arauen arabera izango da.

Arrazoi berdinegatik, eta baloreei eta bere zaintzari eta kaudimen-etzari buruzko prozesuari aplikatu dakiokeen atzerriko legeriak ezartzen duenaren arabera, egoera konpontzen den bitartean eta bezeroaren eskubidea aitortzen den arte (denboran atzeratu liteke-eta), kaudimen-etzak Titularrari baloreak berezkoak dituen eskubideak aitortu eta gauzatzeko galaraz diezairoke, esate baterako erreklamazio-ekintzak burutzea; horretarako beharrezkoa izan daiteke kontu globalaren titularraren laguntza lortzea (eta hori ukatu egin daiteke, denboran atzeratu daiteke edo gerta daiteke teknikoki ezinezkoa izatea ere).

Azkenik, Titularrari jakinarazten zaio, Europar Batasuneko legeriari jarraiki, kreditu-erakundeetan irekitako kontuetako bezeroen balore-gordailuek berme-sistemen babesari dutela, Estatu Kide bakoitzeko legeriek ezarritako baldintzetan eta mugetara arte. Europako Batasuneko herrialdeetatik kanpo, litekeena da gordailu horiek ez egotea berme-sistema baliokide edo analogoen bidez babestuta.

Arrisku horien jakitun, Titularrari jakinarazten zaio, halaber, bezeroen aktiboak babesteari buruzko Espainiako legeriari jarraiki, Bankuak ez duela bermatzen eta ez duela baloreak itzultzeko betebeharririk izango, nazioarteko Azpijagole baten porrota edo kaudimengabetasuna etorriz gero; bere ardura izango da, Azpijagoleen erabilerari eta kontu globalen erabilerari dagokionez, nazioarteko Azpijagoleen ebaluazioan, aukeraketan, kontratazioak, mantentzean eta kontrolean behar bezalako prestasuna jartzea (berez ala izendatutako Azpijagole baten bitartez), horretarako kaudimen, operazio- edo legezko arrisku eta zerbitzuaren kalitateari buruzko irizpide eta betekizun oso zorrotzak jarraituz, eta bezeroei modu argi, osatu eta ulergarrian Bankuan irekitako kontuetan zaintzeko atzerriko baloreak kontratatu eta gordailuan uztearen ondorioz etor daitezkeen arriskuak bere gain har ditzaten. Titularrak balizko arrisku horiek edo, oro har, Azpijagoleetan irekitako kontu globalen funtzionamendua bere gain hartu nahi ez baditu, ezin izango du gorago azaldutako moduan, halaber, mota honetako kontuak erabiltzea eskatzen duten baloreekin jardun.

Informazio artatsua denez eta denborarekin aldatu daitezkeenez (kontratu honen II. eranskinean bildutako Titularraren inbertsio-irizpideen arabera erabil daitezkeen nazioarteko Azpijagoleen kopuru itxuraz geroz eta handiagoarengatik), bezeroen aktiboaren babesari buruz indarrean dagoen araudia betetze aldera, Bankuak eskura jartzen dio nazioarteko

Azpijagole bakoitzaren nortasun, jatorriko herrialde, kreditu-kalifikazio, aktiboen segregazioari buruzko betekizun eta arrisku eta, kasuan-kasu, kontu globalen erabileratik eratorritako arrisku espezifikoei buruzko informazio osatua, eguneratua eta zehatza, atzerriko baloreak kontratatu eta bere kontuan gordailuan jarri baino lehen arretaz kontsultatu eta azter dezan eskatuz.

Informazio hori www.bancosantander.es webgunean ikus daiteke, MiFID atalean, "Azpijagoleen inguruko informazioa" atalean.

Hamalagarrena.- Eragiketen hasierako data.

Kontratu honen xede diren eragiketak Titularrak emandako kontratu honen I. eranskinean islatutako finantza-tresna edota eskudiruko zorroa osatzen duten ondasunen lehena Bankuak duen unean hasiko dira, Bankuak hura egiaztatu eta berretsitakoan.

Hamabosgarrena.- Gastuak eta tributua.

Kontratu honen ondoriozko gastu eta tributu guztiak, eta baita kudeatutako zorroa eratzen duten erosketa, gordailu, administrazio, salmenta edo balore higigarri, titulu, gauza zein bestelako finantza-aktiboen kobrantza Titularraren ardura izango dira.

Hamaseigarrena.- Tarifen liburuxka.

Kontratu hau onetsi eta sinatzean, www.bancosantander.es webgunean argitaratutako Bankuaren Tarifen informazio-liburuxka jaso izana eta eskura duela eta nahi duenean har dezakeela esaten du Titularrak.

Hamazazpigarrena.- Datuen Babesari buruzko oinarrizko informazioa.

1. Kontratu honetako titularrak, pertsona fisikoak badira, eta bertan parte hartzen duen edozein hirugarrenek, abal-emaileak, berme-emaileak, ordezkariak eta/edo kontratuaren titularraren harremanetarako pertsonak baimenduak barne baina horietara mugatu gabe, (aurrerantzean, "**Interesdunak**" eta, oro har, "**Interesdunek**", Banco Santander, SA enpresari (aurrerantzean, "**Bankua**") ematen dizkieten izaera pertsonaleko datuak (aurrerantzean, "**Datuak**") Bankuak tratamenduaren arduradun gisa tratuko ditu, batez ere, xede hauetarako:
 - (i) Bankuarekin kontratuak kontratatze, mantentze eta jarraipena egiteko harremana mantentzeko.
 - (ii) Kontratuaren titularrari zuzenduriko ekintza komertzialak garatzea, oro har, eta zehazki interesgarri izan dakizkizukeen bankuak merkaturatutako finantza- eta aseguru-produktu eta -zerbitzuak eskaintzea edota gomendatzea, iraganean kontratatutakoak aintzat hartuta. Produktuak gomendatzeko, profilarren analisi bat hartu ahal izango da oinarri. Hori, bada, kasu batzuetan, datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako bitartekoak soilik erabiliz egingo da.
 - (iii) Iruzurrezko jarduerak ikertzea edota ezagutzea, Interesdunen Datuak hirugarrenei jakinaraztea ere barne, Grupo Santander-eko enpresak izan edo ez.
 - (iv) Interesdunen ahotsa grabatzeko, zerbitzuaren kalitateari eusteko, horiek Bankuari telefonoz zuzentzen zaizkionean, eta grabazioak epaiketan eta bertatik kanpo frogatzea erabiltzeko, beharrezkoa bada.
 - (v) Anonimo egiteko prozesuak egitea. Horien ostean Bankuak ez du Interesdunak identifikatzeko modurik izango. Prozedura horien helburua anonimizatutako informazioa helburu estatistikoetarako erabiltzea da, baita jokabide-ereduak osatzeko ere.
 - (vi) Interesdunen datuak (identifikatzekoak eta harremanetakoak, behar-beharrezkoak) Santander Taldeko beste enpresa batzuei eta partaidetzako hirugarren enpresei edota Santander Taldeko enpresa laguntzaileei lagatzea, interesdun horiek bankuak merkaturatzen dituen erakunde horietako produktu edota zerbitzuetakoren bat kontratatuz gero.
 - (vii) Interesdunen datuak kreditu-informazioko baterako sistemiei jakinaraztea, ez ordaintzeen kasuetan.
2. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatze eta aurkaratzeko, eta horien tratamendua mugatzeko eta horiek eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Bankuaren aurrean. Gainera, erabaki individual automatizatuen xede ez izateko eskubidea baliatu ahal izango dute; hots, erabakiak hartzeko, pertsona baten laguntza eskatu ahal izango dute. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute

privacidad@gruposantander.es helbidera edo posta arrunt bat helbide honetara: Juan Ignacio Luca de Tena 11 - 13, 28027 Madrid. Interesdunak NANaren edo egiaztatzen duen dokumentuaren kopia erantsi beharko du.

3. Datuen babesari buruzko informazio xehatua Santander-en webguneko Lege-oharra atalean kontsulta daiteke: www.bancosantander.es, baita Bulegoan eskatuta ere, eta eskatzaileak informazio hori edozein ordezkari edo Bankuari, eskaera dela-eta eta dokumentu honen sinatzaile gisa esku hartzen ez duen harremanetan jartzeko datuak eman dizkion pertsonari emateko obligazioa hartzen du.

Hamazortzigarrena.- Gordailuen Berme Funtsa.

Bankua Santander Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtsetara (FDG) atxikita dago.

Informazio gisa, adierazi beharra dago Gordailuen Berme Funtsetaren egoitza Madrilen dagoela, José Ortega y Gasset, nº 22 helbidean (telefonoa: 91.431.66.45; helbide elektronikoa: fogade@fgd.es). Titularrak informazio gehiago lor dezake www.fgd.es webgunean.

Hemeretzigarrena.- Kexa eta erreklamazioetarako prozedurak.

Alderdiek kontratu honi edo beste edozein kontratari loturiko edozein auziren inguruan desadostasunik izanez gero, bezeroek Bezeroaren Erreklamazio eta Arreta Zerbitzuaren aurrean erreklamazioa egin ahal izango dute posta bidez "Apartado de Correos 35.250, 28080 Madrid" helbidean, posta elektronikoa bidez santander_reclamaciones@gruposantander.es helbidean edo Bezeroaren Defendatzailearen Bulegoan, "Apartado de correos 14.019, 28080 Madrid" helbidean.

Titularrak badaki aipaturiko lekuetan aurkeztu behar direla erreklamazioak edo kexak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera bidali aurretik, zeinaren Inbertitzailearen Arreta Bulegoa Edison kalea, 4, 28006 Madrilen dagoen. Gehiago jakiteko, ikus <https://www.cnmv.es/portal/home.aspx?lang=eu>.

Hogeigarrena.- Erregistroak.

Titularrari jakinarazi zaio Bankuak legez kontratu honi lotutako erregistroak gordeko dituela; Titularrarengandik jasotako informazioa, haren sailkapena eta egin daitezkeen aldaketak; kontratu honi dagozkion zerbitzuak emateko Titularraren datu pertsonalak eta informazioa; Titularraren erreklamazioak eta inbertsio-erabakiekin lotutakoak zein Titularraren aktiboak, aurreikusitako lege-hedapenari eta araei dagokienez.

Hogeita batgarrena.- Jaulkitzailearen kaudimen eza.

Hartzekodunen konkurtsoan, porrotean, ordainketa eteteen kasuetan edo Titularrak erositako aktiboen jaulkitzaileen antzerako kasuren batean, kontratu honen arabera, Bankuak Titularrari jakinaraziko dio egokiak iruditzen zaizkion hitzarmenak eta, dagokionean, egoera horren ondorioz sor daitezkeen ekintza edo prozedura judizialen edo epaien ondoriozko gastuak ordaindu beharko ditu Titularrak.

Hogeita bigarrena.- Kudeaketatik at geratzen diren aktiboak eta transakzioak.

Titularrari jakinarazi zaio eta honek adierazten du badakiela Santander Taldeak Banco Santanderren Babeserako Politikaren aurka doazen konpainien zerrenda bat duela, armamentua edo harentzako materiala fabrikatzen, saltzen edo hornitzen duelako, hau da, pertsonen aurkako minak, "racimo" motako bonbak, arma nuklearrak eta arma kimiko edo biologikoak, esaterako. Taldeak erantzukizun sozialeko erantzukizun arloan dituen irizpideen arabera, Banco Santanderrek ez du Titularraren izenean eta haren kontura Santander Taldeak une bakoitzean adierazten dituen aktiboen zerrendan inbertsiorik egingo Taldearen Babes Politika aurkaratzen dutelako.

Aurreko paragrafoan azaldutako politika berbera jarraituko da Bankuak hirugarren bati kudeaketa lagatzen dionean.

Bankuak, gainera, kudeaketa-jarduera burutzean, ez ditu egingo Titularraren izenean eta haren kontura baloreen mailegurik, ezta espezieetan likidatuko diren lehengaien gaineko finantza-tresnekin eragiketarik.

Hogeita hirugarrena.- Forua eta jurisdikzioa.

Kontratu honen interpretazioan, betetzean, efikazian edota etetean zalantzarik balego, Titularrak Bankuaren aurkako ekintzak espainiar legeriak onesten dituen edozein tokiko Epaitegi eta Auzitegietan aurkeztu ahal izango ditu. Aldiz, Bankuaren aukera baldin bada, Titularraren helbideari dagozkion edo kontratua egin den tokiko Epaitegi eta

Auzitegietara abiatu ahal izango da. Gainera, alderdiek adosten dute Merkataritza-kontratu hau Balore Merkatuari buruzko legerian aurreikusitako jokabide-arauei eta informazio-betekizunei jarraiki burutzea.

Eta aurreko guztia onesten dutenaren froga gisa, bi alderdiek kontratu hau sinatzen dute, bi aletan eta efektu bakarrekin, goiburuan adierazitako tokian eta egunean, eta alderdi bakoitzari dokumentu honen ale bana emango zaio.

Titularr(ar)en sinadura **BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)**

Two blue ink signatures are visible. The first signature on the left is a stylized, cursive script. The second signature on the right is a more fluid, cursive script.

Zorroaren Kudeaketarako Kontratu Ereduaren I. eranskina. Kontratuaren sinatzaileak: BANCO SANTANDER, S.A.

eta (Titularra); data: (e)ko aren (a)

(e)n, (e)ko aren (e)(a)n

1.- Bankuak kudeatzeko lagatako Zorroaren osaera (*).

A) Finantza-tresnak (**):

Balorearen deskribapena	Unitate kop.	Gordailua edo erregistratua dagoen erakundea	(***) Erosketa-data	(***) Eskurapen-balioa

(*) Titularra hiltzeagatik titulartasun-aldaketak gertatzen direnean, nazioarteko inbertsio-funtsak dituzten zorroen kasuan, zorroa osatzen duten finantza-tresnak, dagokien jaraunslearen/jaraunsleen titulartasun-zorroa osatzen dutenak izango dira, eta osaera hori titular jaraunsleari/jaraunsleei zehaztuko zaie aldizkako txosten honetan.

(**) Titularrak baimena ematen du finantza-tresnen kopurua handia bada haien zerrenda kontratuaren eranskinean biltzeko, eta bere sinadurarekin onartuko du hura.

(***) Datu horiek emango ez balira, baliteke Bankuak balore horri buruz igorritako zerga-informazioa zehatza ez izatea. Titularra izango da atal horietan adierazitako datuen egiazkotasuna eta zehaztasunaren erantzulea.

B) Eskudirua: - euro.

2.- Bankuari ordaintzea.

Irekiera-komisioa. Bankuak zorroaren kudeaketa zerbitzuarengatik jasoko dituen ordainsariak hauek izango dira, kudeatuko den ondarearen arabera:

Komisio mistoa, hauez osatua:

a) Komisio finkoa, % 1,50eko oinarri urtekariduna, gutxienez 37,50 eurokoa, zordunketa-aldiaren bukaeran kudeatutako balore eraginkorraren gainean zehaztua.

Komisioa egunean behin zordunduko da eta hiru hilean behin likidatuko da; eta

b) Komisio aldakor bat, etekinen % 5eko oinarri urtekariduna (errebalorizazioari buruzko komisioa). Komisio hori urtero sortzen eta likidatzen da, urte naturaletan, Bankuak kudeatzen duen zorroaren errebalorizazioaren gainean.

Ondorio horietarako, alde positibo hau hartuko da "etekintzat" edo "errebalorizaziotzat": zorroaren balio efektiboa, urtarilaren 1ekoa (edo zerbitzuaren hasiera-data, geroagokoa bada), urte bakoitzeko abenduaren 31koarekin (edo zerbitzuaren amaiera-data, lehenagokoa bada) konparatuz ateratzen dena, ekarpenak kenduz eta aldi horretan egindako kenketak batuz.

Likidazio-aldia baino aldi laburragoetarako, kudeaketa-komisioa likidatu egingo da (eta, etekinengatik edo errebalorizazioagatik kudeaketa-komisioaren kasuan, hura ere sortu egingo da), zerbitzua benetan eman den egun

kopuruari dagokion proportzioan. Kudeaketa-komisioaren lehen likidazioaren ondorioetarako, Bankuak kudeatutako zorroa osatzen duten ondasunetatik lehena eskuratzen duen eguna hartuko da haren sortzapenaren hasieratzat, Titularrak Bankuari kudeatzeko ematen diona.

Aurreko komisiorei balio erantsiaren gaineko zerga edota dagozkion zergak aplikatuko zaizkie, araudi aplikagarriaren arabera.

Kudeaketa-komisio horretan ez dira sartzen titularraren izenean eta kontura egindako eragiketa bakoitzari eta kudeatutako zorroan mantendutako aktiboen zaintza, gordailu, erregistro eta administrazioari lotutako komisio, kostu eta gastuak. Aurretik adierazitako tarifak zein Titularrari dagozkion komisioak edo gastuak ez dituzte gaindituko egintza honetan Titularrari entregatzen zaion tarifen informazio-txostenean zehaztutako gehienekoak.

3.- Santander Asset Management, S.G.I.I.C., S.Ako kudeaketa-zerbitzuaren ordezkari-tza.

Kontratu honetako Laugarren baldintza orokorrean adostutakoaren arabera, Bankuak Titularra jakinarazten dio Santander Asset Management, S.G.I.I.C., S.A.ri ("Santander Asset Management") lagatzen diola, kontratu honi jarraikiz, Bankuari agindutako kudeaketa-zerbitzua; hortaz, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, Santander Asset Management izango da aipatutako kudeaketa-zerbitzua burutuko duena. Sozietate hori gaituta dago bezeroaren zorroaren inguruan inbertsioak egin ala ez egin erabakitzeko, eta Titularraren eta Bankuaren artean adostutako inbertsio-irizpideak ez ditu aldatuko.

Kudeaketa eskuordetzeak ez dakar berekin Titularraren eta Bankuaren artean sinatutako kontratu eredu honetan hitzartutako baldintzarik aldatzea.

Hori dela eta, eskuordetzeak ez du Bankua kudeaketatik eratorritako erantzukizunetik salbuetsiko eta ez ditu Bankuak Titularraren aurrean dituen eskubide eta betebeharrak ere aldaraziko. Halaber, aipatutako eskuordetzeak ez dizkio zorroen kudeaketako kontratu honetan Titularrari gastu gehigarririk edo hitzartutako komisioen aldaketarik ekarriko.

Titularrari jakinarazi zaio Bankuak Santander Asset Management-i ordaindu egingo diola eskuordetutako zorroen kudeaketa-zerbitzuarengatik eta horrek ez diola Titularrari kostu gehigarririk ekarriko.

Hauek dira sozietate kudeatzaileak kudeaketa-zerbitzua eskuordetu duen azpi-gordailuzainaren datuak:

SANTANDER ASSET MANAGEMENT, S.A., S.G.I.I.C., helbidea Calle Serrano, 69, Madrid (28006) eta IFZ: A-28269983 dituen, eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan jaso: M-67304 orria, 83 folioa, 30.892 liburukia, 8. atala, 174. inskripzioa. **SANTANDER ASSET MANAGEMENT, S.A., S.G.I.I.C.**, zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua emateko gaitu den entitatea da, zeina Espainiako legeen arabera sortu den, Espainiako hiritartasuneko eta egoitza Espainian duena, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratuta dago (www.cnmv.es), zeinaren erregistroan eman duen izena 12 zenbakiarekin. **SANTANDER ASSET MANAGEMENT, S.A., S.G.I.I.C.**, Inbertsioak Bermatzeko Funtsera atxikita dago, berariazko erregulazioan ezarritako terminoetan.

4.- Erreferentzia-parametroak.

Indarrean dagoen araudia betetzeko, Bankuak kudeaketa estrategikoko adierazle batzuk zehaztu ditu, zeinak Titularrari kudeatutako zorroaren jarrera kuantitatibo eta kualifikatiboa ezagutzea ahalbidetzen dioten, Titularrak zehaztutako arrisku-profilaren arabera, eta zeinak kudeaketa jardueraren eta aldizka lortutako emaitzen arteko erlazioaren adierazle izango diren.


Bankuak Titularrari jakinaraziko dizkio kudeaketa jardueretan erabilitako arrisku-profil bakoitzeko erreferentzia-parametroak Titularrak ebalua ditzan inbertsio-zorroaren emaitzak. Adierazitako parametroak erabiliko dira helburu horiekin, Titularrak eta Bankuak beste bat erabiltzea adosten dutenean izan ezik.

	Kontserbadorea	Ertaina	Orekatua	Dinamikoa
Errenta aldakorra	% 10,0	% 25,0	% 40,0	% 55,0
MSCI World ACWI				

Errenta finkoa	% 90,0	% 75,0	% 60,0	% 45,0
<hr/> ICE BOFA 1-3y Euro Broad Market Index				

	Oldarkorra
Errenta aldakorra	% 100
<hr/>	
MSCI World Ex Europe	% 60
MSCI Europe	% 40
<hr/>	

Titularr(ar)en sinadura **BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)**

Two blue ink signatures are present, one on the left and one on the right, both appearing to be handwritten in a cursive style.

Zorroaren Kudeaketarako Kontratu Ereduaren I. eranskina. Kontratuaren sinatzaileak: BANCO SANTANDER, S.A.

eta (Titularra); data: (e)ko aren (e)(a)n

(e)n, (e)ko aren (e)(a)n

Hauxe da kontratuaren egunean Titularraren egokitasun-probaren emaitza den inbertsio-profila:

A) Titularraren jakintza, finantza-egoera eta inbertsio-helburuen inguruko informazioa eguneratzeko prozedura.

Espresuki jakinarazten zaio Titularrari zorroen kudeaketa zerbitzua kontratatu eta emateak legez aurretik eskatzen duela egokitasun-proba egitea, Bankuak Titularraren inguruko informazio zehatza edukitzeko eta hura ebaluatu ahal izateko Bankuak ematen duen edo Titularrak eskatutako kudeaketa-zerbitzua Titularrarentzat egokia den ikusteko eta horren arabera egin beharko diren transakzio zehatzak egiteko.

Bankuak egokitasuna ebaluatzeko, titularraren egokitasun-testaren emaitza hartuko du erreferentziatzat (lehen titularra, titularkidetasunaren kasuan), eta pasiboko, aurrezki-produktuetako eta Bankuan egindako inbertsioko produktuen posizio guztiak hartuko ditu kontuan, titular bakar gisa edo lehen titular gisa, titularkidetasunaren kasuan, Titularrak aholkularitza-zorro independenteetan dituen posizioak izan ezik.

Titular bat baino gehiagoko posizioetan, Titularrek badakite Bankuak posizio horien Titular gisa datorren bezeroaren egokitasun-proba egitea erabaki duela. Ondorioz, gainerako titularrek onartu egiten dute Bankuak kudeaketa-zerbitzua ematea kontratu honen lehen titularrak egindako egokitasun-testean oinarrituta.

Bankuak aldizka berrikusiko du ebaluazioaren emaitza eta lehenengo titularrari jakinaraziko dio hura. Ondorioz, Titularrak derrigorrez jakinaraziko dio Bankuari inbertsio-helburuetan (barnean hartuta, osagarri gisa, jasangarritasun-hobespenak), finantza-egoeran eta esperientzia edo jakintzetan gerta daitekeen aldaketa oro. Titular guztiek nahi badute egokitasun ebaluaziorako hartu den profila aldatzea beste titular baten egokitasun-testaren emaitza hartuta, denen adostasuna idatziz bidaliko dute bulegora kotitularitasun ordena aldatzeko, eta lehenengo Titular gisa jakintza, inbertsio-esperientzia eta inbertsio-profil hobea eta, gainera, kotitularitasun-erregimenean mantentzen duten zerbitzurako egokien jotzen diren jasangarritasun-hobespenak, dituen jartzeko. Kasu horretan, Bankuak egokitasun-proba kotitularrek lehenengo Titular berri izendatu duten pertsonari egingo diote.

Bankuak Titularrak II. eranskinean adierazitako profilaren eta egokitasun-probaren emaitzaren artean koherentzia lortzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu. Kudeatutako zorroa Titularrak Bankuan dituen posizioen zati bat dela edo izan daitekeela kontuan hartuta, Titularrak betetzen duen egokitasun-testak ematen duen emaitza erreferentzia gisa erabiliko da Bankuko posizio guztientzat. Edonola ere, gerta daiteke egokitasun-testaren emaitza den inbertsio-profilaren ezberdina den arrisku-profila izatea kudeatutako zorroak.

Horren arabera, kudeatutako zorroaren arrisku-profilaren eta kudeaketa-kontratua sinatu zenean egindako egokitasun-probaren emaitzaren ondoriozko inbertitzaile-profilaren artean aldeak badaude, edo II. eranskin honetan zehazten diren inbertsio-irizpideak gero aldatzen badira, Titularrari jakinaraziko zaio kudeatutako zorroaren arrisku-profila zein Titularrak Bankuan izan ditzakeen gainerako posizioena egokitasun-probaren emaitzen arabera inbertsio-profilarekin bat etortzea beharrezkoa dela.

Halaber, kudeatutako zorroan jasangarritasun-gaietan (ingurumenekoak, sozialak edo gobernanzakoak "ASG") atributuen eta egokitasun-testean adierazitako jasangarritasun-lehentasun posibleen artean aldea badago, Titularrari jakinaraziko zaio jasangarritasun-gaietan kudeatutako zorroaren kalifikazioak (Titularrak Bankuarekin izan ditzakeen eta irizpide jasangarriekin sailka daitezkeen gainerako posizioekin batera) bat egin behar duela Titularrak egokitasun-testean adierazitako jasangarritasun-lehentasunekin.

Kudeaketa-zorroa Titularrak Bankuan duen ondarearen zati gisa hartuko da, bere jasangarritasun-lehentasunen arrisku-maila eta behaketa baloratzeko, Titularrak uneoro dituen posizioen multzoarekiko. Horretarako, kudeatutako zorroa osatzen duten aktibo zehatzak edozein direla ere, Bankuak hauek esleituko ditu: i) arrisku-maila baliokide bat zorroen kudeaketa-kontratuen arrisku-profil bakoitzari, kudeatutako den ondare osoaren neurketa muga gisa erabiliko dena; ii) kalifikazio bat kudeatutako zorroari bere osotasunean, jasangarritasun-gaietan dituen atributuen arabera. Kudeatutako zorroaren profilaren eta egokitasun-probaren emaitzaren artean aldeak badaude, Bankuak gutxienez sei hilean behin jakinaraziko dizkio Bankuan bere posizioen multzoak dituen arrisku-mailaren eta egokitasun-probaren

emaitzaren arteko alde horiek eta/edo haiekiko jasangarritasun-lehentasunen behaketa. Titularraren obligazioa izango da Bankuarekin kolaboratzea aipaturiko alde horiek kudeatzen, hala eskatzen bazaio.

Kasu batean zein bestean, kudeaketa jarduera burutzean, Bankuak uneoro jarraituko ditu Titularrarekin II. eranskinen adosten diren inbertsio-irizpideak, lehenengo baldintza orokorraren 3. atalean zehazten denaren aurka egin gabe.

Titularrak aipaturiko irizpideak aldatu ahal izango ditu, funtsezko elementuei dagokienez. Horretarako, II. eranskin berria sinatuko du eta kontratu honetan aurretik zegoena ordezkatu du. Inbertsio-irizpide berriak kontratu honetako lehenengo baldintza orokorraren 4. zenbakian zehaztutakoa beteaz sartuko dira indarrean eta izango dira lotesleak.

B) Inbertsio-irizpide orokorrak zehaztea.

Aurreko guztiari jarraikiz eta indarrean dagoen araudiaren arabera eta kontratu honen lehen baldintza orokorrean ezarritakoaren arabera, alderdiek **INBERTSIO-IRIZPIDE OROKORRAK** adosten dituzte, eta haietara egokitu beharko dira Bankuak burutuko dituen zorroa kudeatzeko jarduerak; hain zuzen ere, hauek:

1) **Eragiketa edota baloreen zein finantza-tresnen kategoriak, Titularrak berak ekintza honetan adostutako berariazko baimenaren arabera, hau dagokiona:** (adierazi dagokiona).

ERAGIKETA-MOTA	BAIMENA	
Errenta Aldakorreko baloreak	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Errenta finkoko baloreak	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Eskudiruko beste finantza-tresnak	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Finantza-tresna eratorriak (*)	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Aktibo hibridoak (**)	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Inbertsio kolektiboko erakundeak	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

(*) Titularrak berariazko baimena eman beharko du dagokion eranskina sinatuz (IV. Eranskina). Berariazko baimen hori ez badago, eman ez dela ulertuko da.

(**) Adibide gisa, aktibo hibridoak dira, bonu bihurtgarriak, partaidetza preferenteak, zor subordinatua eta deribatu implizituak dituzten errenta finkoak edo antzerako ezaugarriak dituzten bestelakoak. Titularrari jakinarazten zaio aktibo hibridoak likidezia gutxiko aktiboak direla eta une bakoitzean adierazten diren prezioetan saldu eta erosteko zailak direla. Balore horiek oso hegakorrek eta baloratzeko zailak izaten dira.

Titularraren baimena behar duten beste eragiketak eranskin berezian (*):

ERAGIKETA-MOTA	BAIMENA
Inbertsio Libreko IICak, Inbertsio Libreko IICen IICak edo inbertsio libreko beste baliabideak (*)	BAI <input type="checkbox"/> EZ <input checked="" type="checkbox"/>

(*) Titularrak baimen espresua eman beharko du dagokion eranskina sinatuz (V. Eranskina). Berariazko baimen hori ez badago, eman ez dela ulertuko da.

Titularrak badaki eta onartzen du hainbat balore edo finantza-tresnatan gauza daitekeela inbertsioa, Bankuaren enpresa taldeko beste erakundeak parte har dezaketen prezio alde, gordailu, salmenta edo atazen kudeaketa, bitartekaritza bitartez barne. Gainera, badaki posible dela egunero saldu edo itzultzea ahalbidetzen ez duten tresnen bitartez gauza daitezkeela inbertsioak, edo epe zehatz batez inbertsioa ezartzea beharrezkoa izan daitekeela salmenta edo itzulera-komisioak saihesteko, eta hori jakinaraziko zaio Titularrari gomendatutako kudeaketako ondarearen likidezia osoa berehala berreskuratzea nahi badu, berreskura dezan.

2) **Zorroaren arrisku-profila:** (adierazi dagokiona).

Arrisku-profila	Errenta Aldakorren Portzentajea zorroaren totalarekiko	Errenta Aldakorren Portzentajea Finkoa High Yield	Dibisaren portzentajea zorroaren totalarekiko	Baimena

		zorroaren totalarekiko		
Kontserbadorea	% 20raino	% 20raino	% 20raino	<input type="checkbox"/>
Ertaina	% 40raino	% 20raino	% 40raino	<input type="checkbox"/>
Orekatua	% 60raino	% 25eraino	% 60raino	<input type="checkbox"/>
Dinamikoa	% 80raino	% 30eraino	% 70eraino	<input type="checkbox"/>
Oldarkorra (1)	% 100eraino	% 40raino	% 80raino	<input checked="" type="checkbox"/>

(1) Profil oldarkorraren xedea etengabe zorroaren zati handiena errenta aldakorreen inbertitzea da.

Aurreko aukera bat ere markatzen ez bada, Titularrak Errenta Finkoa aukeratu duela ulertuko da.

Zorroaren arrisku-profilaren arabera, I. eranskinean adierazitako erreferentzia-parametroa erabiliko da.

3) **Errenta aldakorreko aktiboen banaketa geografikorako irizpideak:** GLOBALA

4) **Titularraren berriazko baimena interes-gatazka eragin dezaketzen zenbait eragiketatarako.**

Eranskin honen lehenengo atalean onartutakoen barruan, Titularrak baimena ematen dio Bankuari eragiketa edo inbertsio hauek egiteko, bakoitzak bere kabuz edo kudeatutako zorroan aurretik zeuden finantza-tresnen edo balore beren posizioei gehituta, administratutako zorroaren guztizko zenbatekoaren ehuneko hogeita bosta (25) baino gehiago izan daitezen: (adierazi dagokiona).

ERAGIKETA-MOTA	BAIMENA	
Bankuak edo Bankuaren taldeko erakundeek jaulkitako baloreak edo finantza-tresnak	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Bankuak edo Bankuaren taldeko erakundeek kudeatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan egindako inbertsioa	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Bankuko taldeko erakunderen bat jaulkipenaren zein salmenta eskaintza publiko baten aseguratzailea edo jartzailea den balore edo finantza-tresna baten harpidetza edo erosketak.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Titularraren eta Bankuaren beste bezeroen arteko eragiketak	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

5) **Kontu globalak erabiltzeko berriazko baimena.**

Atzerriko merkatuetan edo Titularraren atzerriko II Cetan baloreak negoziatzeko kontu orokorrak erabiltzea	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
--	--	------------------------------------

Hamahirugarren baldintza orokorrean adostu denaren arabera, Titularrari informatu zaio eta hark ezagutzen ditu Bankuak titularraren atzerriko baloreen zaintza esleitu dizkien azpijagoleak edo nominarioak eta orri honetan haien inguruko informazioa dago: www.bancosantander.es.

6) **Galera-atalasea.**

Alderdi onesten duten galeren atalasea, kontratu honen zazpigarren baldintza orokorraren arabera zehaztua, kudeatutako ondarearen ehuneko hamarra (% 10) edo ehuneko hamarraren ondorengo multiploak (% 10) izango dira.

Bankuak, Titularrari jakinaraziko dio kudeatutako zorroaren balorea, informatzeko aldi bakoitzaren hasieran balioztatzen den bezala, ehuneko hamarra (% 10) jaisten denean eta, ondoren, ehuneko hamarreko (% 10) multiploetan, gehienez atalase hori gainditzen den lanegunaren bukaeran, edo atalasea jaiegunean gainditzen bada, hurrengo egunaren bukaeran.

7) **Kontratuaren xede diren inbertsioentzat espero den denbora-tartea.**

Titularrak espresuki adierazten du kontratu hau denboran zehar irauteko hitzartu dela, eta Bankuari kudeaketa epe ertain edo luzean eskatu zaiola, inbertsio-irizpideen arabera, arriskuak hartzeko nahiaren arabera, inbertsioen xedeen arabera eta Titularrak aukeratutako zorroaren profilaren arabera, II. eranskin honetan bildutakoa betez.

Gainera, Titularrak kontuan izan behar du kudeatutako zorroa Bankuan dituen posizioa edo posizioetako bat dela, eta, horregatik, baliteke Titularrak Bankuak dituen posizio guztientzat burutuko duen egokitasun-proban adierazitako denborak inbertsio-profila kudeatutako zorroarentzat kontratu honetan adierazitako epe ertaina edo luzea ez izatea.

Titularr(ar)en sinadura **BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)**

Two blue ink signatures are present. The first signature on the left is a stylized, cursive 'A' with a large loop. The second signature on the right is a more fluid, cursive signature that appears to be 'Mun' or similar.

Zorroaren Kudeaketarako Kontratu Ereduaren VI. ERANSKINA. Sinatzaileak: BANCO SANTANDER, S.A. eta (Titularra); , data: (e)ko aren (a)

(e)n, (e)ko aren (e)(a)n

HAUEK BILDU DIRA:

ALDE BATETIK, Inbertsio Zorroen Kudeaketarako Kontratu Ereduaren titularrak:

Izen-deiturak/Izen soziala: NANA/Nortasun-agiria:

bere izenean eta eskubidez.

ETA BESTETIK, Olga Abad Paris andrea eta Alejandro Cecchi González jauna, eskritura bidez ahaldunduak. Notario hauek egiletsi zituzten eskritura horiek, hurrenez hurren: Kantabriako Kidego Txit Prestuko notario Juan de Dios Valenzuela Garciak, 2014/11/26an eta 2214 protokolo-zenbakiarekin; eta Juan de Dios Valenzuela Garciak, 2014/11/26an eta 2214 protokolo-zenbakiarekin.

HAU AZALDU ETA ADOSTU DUTE:

Lehena. 2024ko maiatzaren 27an, Titularrek eta Bankuak Inbertsio-zorroen Kudeaketarako Kontratu Eredu bat sinatu zuten, eta hauek dira parte-hartzaileak:

Izen-deiturak/Izen soziala: NANA/Nortasun-agiria:

Haren zorroak, egun, zenbakia du; eta lotutako kontu korronteak (Kontu Administratua), berriz, zenbakia.

Bigarrena. Titularrek badakite eta onartzen dute zorroak kudeatzeko zerbitzua emateko beharrezkoa dela zorro horri lotutako Kontu Administratu bat izatea. Hala ere, Titularrek hala eskatzen badute, zerbitzua emategatiko komisioa Bankuan Titularren edo hirugarrenen izenean irekitako beste edozein kontu korrontetan kargatu daiteke.

Ondorioz, eta dokumentu hau sinatzen denetik kontaktzen hasita, aldeek adosten dute Bankuak zorroak kudeatzeko zerbitzuagatik jasotzeko eskubidea duen komisioak, Lehen azalpenean adierazitako Inbertsio Zorroen Kudeaketarako Kontratu Ereduaren arabera, ES8100491990042710063995 zenbakidun kontu korrontean zordunduko direla. Kontu hori Bankuan dago irekita, Titular batzuen kudeaketa-kontratuaren Titularren/Titularren izenean, eta Bankuak baimena du automatikoki zordundu eta kobratzeko aipatutako kudeaketa-zerbitzuak zor dituen zenbatekoak. Kontu korronte horretan saldo nahikorik ez badago, Bankuaren alde aipatutako Inbertsio Zorroen Kudeaketarako Kontratu Ereduan itundutako konpentsazio-eskubidea aplikatuko da.

Elkartutako Kontu Korrontearen Titularrak/Titularrek, Kudeaketarako Kontratu Eredukoak ez badira, espresuki onartzen dute, Kudeaketa Kontratu Ereduaren eranskin hau sinatuz, Bankuari eskuordetzea eta Kontratu Eredu horretarako adostutako xedatze-modua, eta espresuki baimena ematen dute dagokion Kontu Korrontean islatzeko aipatutako zerbitzuan hitzartutako komisioengatik zor diren zenbatekoen karguak.

Azkenik, zorroari lotutako Kontu Administratua, eranskin honen lehen akordioan adierazia, aldatu gabe mantenduko da, eta kudeaketa-zerbitzua emateko kontabilitate-euskarri gisa balioko du, Kudeaketarako Kontratu Ereduan eta eranskin honetan itundutakoaren arabera.

Dokumentu hau aurreko lehen hitzarmenak aipatzen duen Kontratu Ereduaren zati bat da. Alderdiek berresten dute haren edukia, eta indarrean jarraitzen du, baldintza guztietan, inolako aldaketarik izan gabe, hemen itundutakoa izan ezik, horrek ez baitu ekarriko Kontratua berritserik.

Ados daudela adierazteko, bi aldeek eta loturiko kontu korrontearen Titularrek eranskin hau sinatzen dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Titularr(ar)en sinadura

BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)

A handwritten signature in blue ink, consisting of two distinct parts. The first part is a large, stylized initial 'B' with a loop. The second part is a more fluid, cursive signature that ends with a horizontal stroke.

Zorroaren Kudeaketarako Kontratu Ereduaren VII. ERANSKINA. Sinatzaileak: BANCO SANTANDER, S.A. eta (Titularra); , data: (e)ko aren (a)

(e)n, (e)ko aren (e)(a)n

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2019/2088 Araudia, 2019ko azaroaren 27koa, finantza-zerbitzuen sektorean (aurrerantzean ("SFDR")) jasangarritasunari buruzko informazioaren berri emateari buruzkoa, gauzatzeko, kudeatutako zorroak (aurrerantzean "Zorroa") ingurumeneko eta/edo gizarteko ezaugarriak sustatzen ditu SFDR 8. artikularekin bat ginez, baina ez du helburutzat inbertsio jasangarriak egitea.

- Kudeatutako zorroak ingurumeneko ezaugarriak eta/edo sozialak sustatzen ditu baina ez du inbertsio jasangarririk egiten.

Hauek dira kudeatutako zorro honen bidez egindako inbertsioekin sustatzen diren ezaugarri sozial eta/edo ingurumeneko nagusiak:

- **Ingurumena zaintzea:** klima-aldaketa murriztea (energia berriztagarriak sustatzea, CO2 igorpenak, negutegi-efektuko gasak eta abar), baliabide naturaletarako onura (basogintza-politikak, urarenak, zuren tratamendua eta abar), poluzioa murriztea, hondakinen kudeaketa egokia eta/edo ingurumen-aukerak.
- **Irizpide sozialak:** giza eskubideen errespetua sustatzea, lan duina, langilea enpresaren barruan garatzea, bai alderdi profesionalari dagokionez bai pertsonalari dagokionez (genero-berdintasuna, trebakuntza, segurtasuna eta osasuna, garapen profesionala eta abar), eta/edo enpresako produktuen kontrola, kontsumitzaileei kalte fisiko edo moralik eragin ez diezaieten, besteak beste. Halaber, alfabetizazio, enplegu, hezkuntza edo kalitate sozialeko (bizi-esperantzarekin erlazionatutako) politikak sustatzea. Era positiboan baloratuko dira eskualde behartsuenen garapena sustatzen duten ekimenak.
- **Gobernu egokia eta enpresa-etika:** gobernu eta portaera korporatiboa, enpresen zuzendaritza-taldearen eta inbertitzen diren igorleen kalitate-analisi sakona eginez, balio jakin baten bilakaeran epe laburrean eragin dezaketen gertaera eta albiste negatiboak mugatzeko (hala nola istripuak, grebak, ustelkeria eta iruzurrak). Halaber, gobernu korporatiboaren barruan arreta berezia emango zaio administrazio-kontseiluaren osarari, han dagoen emakume-kopuruari dagokionez, kontseilari ordainsariei dagokienez, enpresaren kontrol eta jabetzari dagokionez eta kontabilitateari dagokionez. Halaber, araudiaren estandarrak eta Estatuaren legeak behar bezala betetzen direla, ustelkeria kontrolatzen dela, I+Gn inbertitzen dela, egonkortasun politikoa dagoela eta enpresak sortzeko eta/edo inbertitzeko askatasuna dagoela.

Ezaugarri horiek gauzatzeko, Zorroak inbertsio-estrategia hau gauzatzen du:

Sozietate kudeatzaileak adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen azterketan oinarritutako ASG metodologia du. Adierazle horiek hainbat datu-hornitzailetatik eskuratzen dira, eta Zorro honetan lehenago identifikatu diren ingurumeneko ezaugarri eta/edo ezaugarri sozialak sustatzen diren modua era positiboan eta/edo negatiboan baloratzeko aukera ematen dute. Zehazki, sozietate kudeatzaileak jasangarritasun-adierazle hauek hartzen ditu kontuan:

- i. Zorroak inbertitzen duen aktiboen jaulkitzaile publiko zein pribatuetako bakoitzaren ASG puntuazioa eta ratinga.
- ii. Zorroa osatzen duten aktiboen puntuazioa ingurumenaren arloan, arlo sozialean eta gobernantza-arloan.
- iii. Zorroaren ratingaren xehekatzea.

Deskribatutako estrategia honela ezartzen da inbertsio-prozesuan:

Zorroak jasangarri gisa sailkatutako finantza-produktuetan inbertitzen du, eta Zorroak produktu hauekiko duen ohiko kontaktua % 51tik gorakoa dela zaintzen da. Zorro honen bidez inbertitzen diren aktibo jasangarriak identifikatzeko, sozietate kudeatzaileak Zorroa osatzen duten azpikoen ASG puntuazioa hartzen du kontuan, eta azpikoen % 51k gutxienez A- batezbesteko kalifikazioa dutela zehazten du. Sailkapen horien bidez, Zorroak sustatzen dituen ingurumen ezaugarriak eta/edo ezaugarri sozialak gauzatzeko ekintza egokiak ahalbidetzen dira.

Zorroak sustatutako ingurumeneko ezaugarriak eta/edo sozialak ebaluatzeko:

- Ez da ezarri ingurumenarekiko espezifiko den erreferentzia-indizerik.

Zorroaren arrisku-profila eta ezarri diren inbertsio-irizpideak edozein direla ere, zeinak zorroaren kudeaketara doitu beharko baitira, Titularrak ezagutzen du eta onartzen du zorroen kudeaketa-zerbitzua ematen dela Zorroa SDFR 8. artikularekin bat egiten duten ingurumeneko ezaugarriak eta/edo sozialak sustatzen dituen finantza-produktu gisa kalifikatetik eratortzen diren betebeharrak betez, VII. eranskin honetan ezarritakoarekin bat eginez eta horrek kudeaketa-helburuetan izan ditzakeen efektuekin eta kudeaketa diskrezionalaren gaitasunarekiko inplikazio espezifikoekin, Zorroan sar daitezkeen aktibo motei dagokienez edo finantza-tresnei dagokienez, bereziki, eta haietan egin daitezkeen bestelako eragiketa motei dagokienez.

Titularr(ar)en sinadura **BANCO SANTANDER, S.A. (ahalorde bidez)**

Two blue ink signatures are visible. The first signature on the left is a stylized, cursive signature. The second signature on the right is a more fluid, cursive signature.